

IKAS(TALO)

01



AEK-ko ikastaldia abian da!

AURKIBIDEA

- 01 Erreportajea
Romain Roqueferen kronika
- 02 Argazkia
Erredakzioa lanean
- 03 Iritzi Artikuluak
Jean-Claude eta Carolen iritziak
- 04 Elkarrizketa
“Kontua da lehen hitza beti euskaraz egitea”
- 05 Albisteak
Sandra Urrutyren azken kutzukeriak
- 06 Historiografia
Gure Maddi

01

PAZIENTZIA
ETA BIZIAREN
ARTEANROMAIN
ROQUEFERE

08:30ak dira eta ikasleak hasten dira topatzen EtxepareLizeoaren aitzinean. Irribarre bat ikusten da haien aurpegian eta lehen elkarrizketak agertzen dira... euskaraz bistan dena. Pixkabat lotsati hasieran. Hitzak xerkatzen ari da. Eskuekin keinuak egiten ari da. Baina, pixkanaka, konfiantza finkatzen ari da. «Oso Ongiak» eta «Lasaiak» nonahi entzuten ahal dira. Aste eder bat izanen ote da?

Lehen ikastaldiko egunean, eguzkia agertzen da Baionan eta temperatura altua da, otsailerako. Aste hau beroa eta goxoa izanen da... ikuspuntu guztietatik.

9:00. Kafe bero bat (edo bi) eta gero, Mikelek eta Mariek, AEK-ko arduradunek, ikastaldiaren ekintzak 100+ ikasleei aurkeztu dizkiete. Programa argi-argia dela badirudi: euskaraz goizetik gauera. Normalki, ikasleak euskaraz amestuko dute gau honetan...



Batzuentzat, zaila da itzultzea eskolara : etxeko lanak, azterketak, arbeleko aurkezpenak, eta abar; memoria zaharrak hain itolarriak. Baina, AEK-k antolatutako ikastaldian, gogorra eta hotza ez dira gertatzen. Laster, bi arduradunek azaltzen dute ikastaldiko programa alaia izanen dela : jokoak, mus heziketa, dantza praktika, partekatuta bazkaria, elkarrizketa Kalostrapen... Berriz, ikasleek arnasa hartzen dute. Formakuntza modua originala izanen da.

Ikasleen ahotsa berotzeko, kurtsuak beti hasiko dira 15 minutuko joko batekin : “Telefono Arabiarra”, “Nire Maletan”, “Hitz Sortzea”. Zer irudimena! Hortik aurrera dena ondo doa.

«Giroa goxoa eta ona da», aipatzen du Valérie, 60 urtekoa, Donapaleukoa. «Nire familian, kide guztiek euskaraz hitz egiten dute – nik eta nire arrebak izan ezik», erraten du. Valérie, erabaki du ikastaldi honetan parte-hartzea, 3. aldiz, ikasteko modua alaia eta dinamizatzailea delako. Gainera, formakuntza egituratuadela ere bai. “Maila bakoitza argia da eta badakigu zer espero den guregandik”, gehitzen du.

13:00. Egurdiko etenaldia heltzen da. Giro goxo honen gibelean, ikastaldiko erritmoa oso bizi da: deklinabideak, ariketak, mintza praktikak, proiektuak, “toka noka” hastapena. Denentzat, segurki, urrats handi bat izanen daeuskara ikaskuntzan. Buruak beteak dira. Goizeko jarduera ugariak burua jirarazten dute. “Baina, aniztasun hau anitz gustatzen zait”, komentatu du Ericek, 55 urtekoa, Donibane Lohizunekoa. Bere haurrak ikastolara joaten dira eta horregatik, ikasi nahi du. Gauza bera gertatzen da Audreyrentzat, Uztaritzekoa. «Nire haurrak ikastolara joaten dira. A.1.2 mailako kurtsua segitzen dut eta gehiago ikasi nahi dut», aipatzen du Audreyk. «Ikastaldi honetan, kideak gisakoak dira» gehitzen du.



14:00. Klase ordua da berriz. Arratsaldean: teoria gutxi, praktika gehiago. Batzuetan, kanpoko pertsonak etortzen dira bere esperientzia partekatzeko: idazleak, kazetariak, etab. Batzuetan, musikak eta kantak entzuten dira klaseetatik. Youtubeko bideo batetik etortzen dela pentsa lezake norbaitek, baina inola ere ez. Ikasleek elkarrekin bertsoaren hitzak kantatzen dituzte.

17:00. Usteko zenuke eguna horrela bukatuko litzatekela. Ez derrigor. Lizeoan egon gaitezke euskal dantzak edo musa ikasteko. Ez galdetu zein hizkuntza erabili behar duzun mesedez...badakizu... Kasu, giroa laster alai bihur daiteke. Musika jostatzen duten ikasleak txaranga bat osa dezake magiaz bezala. Badirudi, alaitasunean euskaraz hobeto hitz egin daitekeela.

Ez da erraza astea horrela laburbiltzea ...
 “indar lasaia” erran nezake?

02

ERREDAKZIOA LANEAN



03

IRITZI ARTIKULUAK



Jean-Claude Iribarren
2025eko AEKko ikastaro
arraroa

AEKko 2025eko udaberriko ikastaroa otso bitxia izan da. ETXEPARE Baionako lizeoan 2025eko apirilaren 4an hasi zen eta ikasleak kopuru handian agertu ziren sartze egun horretan.

Baina gibekeko aparkalekua zeharkatzen otso iduriko txakur bat ikusi zutelarik, ikasle horietariko batzuk harritu ziren. Animalia Tarnoseko oihanari buruz zihoan. Jakinez Larhunen otso bat ikusia izan zela duela gutxi, batek bideoz hartu zuen.

Bideoa prefeturara bidali zuen, doi bat irri egiteko kurtsoak abiatu aitzin. Ustekabea, prefeturaren zerbitzuek otsoa zela baieztatu zuten.

Prefeturak ikastaroaren zuzendaria deitu zuen; hark erran zuen ikasleak ez zitezela izi, otsoa animale beldurtia baita eta ez baitu sekula gizakia erasotzen. Eta, halaber, azaldu zuten otsoa babestua zela eta bazirela isun handiak norbaitek babesga inditutako balu.

Are gehiago, komunikabide guztietan gertakaria aipatua izan zen eta ikastaroa behin-behineko fama ukan zuen.

Ikasleek berek ukan zuten zer aipa: nola deitu otso hori eta, bigarrenik, babesga eztabaidatu.

Izena ematea erraza izan zen, nahiz eta bazen hautua OTSOBI (lehena, Larhunekoa deitua izan baitzen OTSAIL) edo ETXEPARE, lizeoaren izenaren artean. Trinkatu zuten OTSOBIren (1) alde, ETXEPAREN gonbidatuak baizik ez baitziren ikasleak.

Nolanahi ere, tira-bira handiena babesaren arazoa izan zen. Batzuek zioten otsoa babestua izanez geroz euskara ere babestua izan behar zela. Gehienek, alta, zeritzoten ez zela zentzuzkoa, mintzaira “handiak” ez zirela babestuak, baizik eta ofizialak... eta euskara ofiziala baledi zer itxura har lezake ikastaro honek?

Oso bestelakoa dudarik gabe.

Eta zuri laguna, orain irakurtzen nauzun horri, ikastaldia izan ote zaizu deigarria eta oroigarria? Beste arrazoi batzuentzat, ezta?

*Eta hau hola bazan,
ez zan ikastaldirik beharrik izan*

1. Ez nahasi Jules Moulier OXOBI (1888-1957) idazle lapurtarrarekin.

IRITZI ARTIKULUAK



Carole Aguerre

Ikastaro bat zendako?
Euskalduna naiz!

Otsanda, Euskal Herrian sortu eta handitu da. Xiberoko Altxürükü herrixkan bizi da bere familiarekin. Etxean, betidanik euskaraz mintzatu da eta Ü-ka ari da naturalki herriko lagunekin.

Baina...

Amaia, Urruñan bizi da. Euskalduna senditzen da, baina bere bizi osoan frantsesa izan da bere hizkuntza. Jende oso gutti dauka inguruan euskaraz hitz egiten duena, baina betidanik entzun du bereziki Euskal Herriko bestetan. AEK gau eskolak eskaintzen duen kurtsoen segitzea garrantzitsua izan zen harentzat 20 urte ukan zituelarik. Aski errazki ikasi du eta lotsarik gabe mintzatzen da aukera duelarik.

Baina...

Julen, baxenabartarra da, betidanik Euskal Herrian bizi izan da. Eskolatzeko momentua iritsi zenean, bere aita-amek, ikastolan ikas zezan erabaki zuten. Eta bai! Mendeku polita agertu zen horiendako ikastolaren hautua. Euskararen debekuaren pisua oraindik sentitzen ahal zuten haien eri puntetan. Makil itsusi hori lepoan lotuta edota asto belarrien txapela oraindik oroitzapenetan iltzaturik daude..

Gaur egun, euskara baliatu nahia hor bada ere, hitzak zintzurreen kokaturik egoiten zaizkie. Julenen aita-amendako argi da, horien semea euskaraz mintzatuko da!

Ez baditu ikasketa guztiak euskaraz egin ere, lehen maila euskaraz egin du Julenek... eta euskara, gaur egun, bere eguneroko hizkuntza da.

Baina...

Baina, euskara ikasteko ikastaroen soinu deia entzun dutelarik euskal irratietan, Otsanda, Amaia eta Julenek izena emaita erabaki dute.

Haien inguruan oporrak ikastaroan pasako zituztela aipatu dutenean, aski bereziak izan dira ukan dituzten oharrak: «zuk?», «aina euskara badakizu!», «lasaitu nazazu, erakasle gisa joanen zara?»...

Ohar horiek, ez ote dute beste galdera bat suposatzen? Zertako ikasten da euskara! Seguru dena da bakoitzak bere arrazoinak dituela.

Ikastaro bat zendako?
Euskalduna naiz!

Ohar horiek, ez ote dute beste galdera bat suposatzen? Zertako ikasten da euskara! Seguru dena da bakoitzak bere arrazoinak dituela.

Otsanda bezalako hainbeste badira euskara etxean ikasi dutenak. Euskal Herriko xoko guzietan euskalki desberdinak entzun ohi ditugula badakigu. Uler daiteke Otsandak zailtasunak ukaiten ahal dituela naturalki komunikatzeko Bermeoko lagun batekin! Zailtasun horien baztertzeko batua ez ote da aterabide bat izaiten ahal?

Haien euskalkien berezitasunak ahantzi gabe eta transmititzen segituz prefosta!

Julen eta Amaiak euskara menperatzen dutela eta, horrenbestez, egunero naturalki baliatzen dutela argi da. Baina besteek ikusten ez dutena da hizkuntza baten menpe izaitea norberaren afera dela. Julen bezala zenbat dira mugaturik ideia zehatz eta fin bat bururaino eramaiteko. Ohartzen garelarik ezin ditugula gure ideiak adierazi euskaraz fransesez bezain aberats eta zehazki, frustrazioa handia bilakatzen da. Holakoetan zilegitasunaren barneratzea zaila izaten zaigu.

« Euskal Herrian euskaraz, nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz... »

04

Nicolas HONTANX

Mikel Pomadereri elkarriketa

“KONTUA DA LEHEN HITZA BETI EUSKARAZ EGITEA”

Mikel Pomadereri, AEKko ikastaldien arduradunari egin diot elkarriketa ikastaldiaren harira dituen gogoetak gurekin parteka ditzan.

Egun on, Mikel, AEK-k antolatutako ikastaldi honetan, langile aritzen zara. Bi hitzetan, zer da zure ibilbidea? Konta iezaguzu pixka bat, mesedez.

Orduan, duela lau urte entzun nuen AEKn irakasleak xerkatzen zirela eta, orduan, ba, nik postulatu nuen eta, hara, proposatu zidaten ikastaldien antolaketaarako postua. Niri gustatu zitzaidan eta onartu nuen. Eta geroztik honetan nabil.

Eta, euskaldun bezala, nola bizi duzu zure egoera, Ipar Euskal Herrian?

Nik nire euskalduntasuna bizi dut eskas, euskaraz hitz egiteko ez baitira nahi bezainbat leku guretzat. Hala ere, nik uste dut nire bizitza euskaraz egitea lortzen dudala. Nire neska laguna euskalduna da eta nire semeak euskaraz jakinen du. Horrez gain, nire lagun hurbilenek euskaraz badakite eta lanean ere euskaraz ari naiz. Orduan, lortzen dut egun osoak euskaraz egiten.

Hala ere, batzuentzat, ez da beti erraza Iparraldean euskaldun izatea? Zein aholku praktiko emango zenieke euskara ikasleei honi buelta emateko?

Nire iritziz, ausartu behar da ohituren aldatzera. Ze, badira baliabideak eta leku ugari euskaraz praktikatzeko, euskaraz biltzeko, bai ostatuetan, bai dendetan, esate baterako. Kontua da lehen hitza beti euskaraz egitea. Ea sorpresa polita egingen dizun parekoak euskaraz erantzuten. Bestalde, ohiturak aldatzen ahal dira, adibidez bideoak euskaraz begiratzuz. Edo, irratia entzuterakoan, France Inter utzi eta Gure Irratia entzun. Badira baliabide ugari guk euskaldunok baliatzen ditugunak eta ikasleek ere erabili behar lituzketenak, nahiz eta ez ulertu. Garrantzitsuenak dena da ahal dena harrapatzea. Horrela barneratzen da hizkuntza, pixkanaka-pixkanaka.



Izan ere, beste ikastaroko ikasleekin hitz egitean, agerikoa da entzungaien falta askoren arazoa dela. Zer esango zenuke honen inguruan?

Litekeena da nire iritzia nolabait faltsua izatea, baina iruditzen zait baliabideak eskuragarri hor direla, pixka bat xerkatuz gero. Adibidez, AEKko ikasle bakoitzak badu "Ikasbide" liburua non entzungai guztiak eskuragarriak diren, QR kode batekin lotuta. Horrez gain, entzungai bakoitzaren transkripzioa abegitsua da. Orduan, hori jakinez gero, baliabideak hor dira, material pedagogikoarekin batera. Horrez gain, arestian aipatu dudana bezala, ikasleentzat erakargarria litzateke ere irratia euskaraz entzutea edo filmak begiratzea Netflixen. Plataforma honen alde edo aurka izan berdin zait. Plataforma honek ere proposatzen ditu filmak, euskaraz azpiztitulatzeko ahal direnak. Pixka bat xerkatuz gero, uste dut atzematen ahal direla horrelako baliabideak, eskas direlako horiek.

Etorkizunari begira, zein da zure asmorik handiena?

Orduan, asmorik handiena, edo egingarriena hasteko litzateke jendeak Euskal Herrian ukan dezan interesa. Euskararekiko interesa bederen, errespeta dezan kultura, jakin mina ukan dezan kulturaren ezagutzeko. Bistan da, asmorik handiena litzateke Ipar Euskal Herriko jende bakoitzak ikas dezan euskara, baina, dakigunez, zaila da. Izan ere, ikastaro honetan hainbeste jende ikusita, ilusio handiaz beteta nago etorkizunari begira.

05

ALBISTEAK

Sandra Urruty

Ikastaldi mota berri bat

Heldu den udan, bestelako ikastaldia proposatuko du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK): jantzirik gabeko ikastaldia.

60ko hamarkadan sortu zen AEK elkarteak, Euskal Herriaren berreuskalduntzeko xedearekin. Gaueko kurtsoak eskaintzeaz gain, ikastaldi eskaintza proposatzen du elkarteak.

Idea sinplea da: hizkuntza baten ikasteko, modurik hoberena murgiltzea da. Horrela, aste bateko, bi asteko edo epe luzerako ikastaldiak proposatzen ditu. Ikastaldi horiek gero eta arrakastatsuagoak zirela ikustean, eskaintza dibertsifikatu dute.

Gaur egun, familiako ikastaldiak, mendiko ikastaldiak, bizikleta ikastaldiak badira. Baina heldu den udan, ikastaldi mota berri bat proposatuko du AEK-k: jantzirik gabeko ikastaldia.



“Jantzirik gabeko ikastaldia antolatzeko eskaera bazen”, azaltzen du Mikelek, AEK-ko ikastaldien arduradunak. “Bretainian, Kortsikan eta Katalunian aspalditik hasi dira horrelako ikastaroak egiten.

Ez genuen uste ikasleek gogoa zutenik jantzirik gabeko ikastaldientzat, naturismoa Euskal Herriko ohituretan ez delako. Baina 2023ko udaz geroztik, gero eta dei gehiago jaso ditugu bulegoan. Jendeak deitzen zuen ikastaldiei buruzko xehetasunen ukaiteko eta dei bukaeran, usu galdegiten ziguten ikastaldi naturistak antolatzen genituenez. Bost aste opor baizik ez dituztenentzat, zaila da hautatzea akanpaleku naturistan aste bateko egonaldia eta euskara ikasteko egonaldiaren artean. Sortu dugun formularekin, ez dute gehiago hautatu behar”.

Bi asteko ikastaldi hori Hendaian egingen da agorrilaren 4tik 15era. Beste ikastaldietan bezala, egunean zehar zazpi ordu kurtso izanen dira eta arrastirietan animazioak ere izanen dira: mus inimizioa, bolei-partida hondartzan, pintxo lehiaketa...

Asteburuan, mendi ibilaldia antolatuko dute, baina segurtasun arrazoiengatik, jantziak derrigorrezkoak izanen dira.

“Izigarritzko xantza izan dugu, Euskal Erakunde Publikoa eta Euskal Hirigune Elkargoa berehala sartu baitira proiektuan eta finantzamenduan parte hartzeko prest agertu dira. Erakunde publikoko

ordezkariak ulertu dute hizkuntza berri bat ikastea arima biluztea dela ”, azaltzen du Aek-ko arduradunak.

Ikastaldi horretan kurtsoak emaitako prest ziren erakasleak atzemaitea izan da zailena. Erakasleak ez dira prest biluzirik kurtosen emaitako, orduan erakasleen artean zozketa bat antolatuko dute.

Maila guziera zuzendua da ikastaldia, “Zaren bezala zatoz” lemak aldarrikatzen duen bezala.

Xehetasun gehiago nahi dituztenak AEK-rekin kontaktuan sar daitezke.

Zurrumurruen xokoa: ikasleen arteko tzarkeriak.

Asteazkenean, gaua zen jadanik A2-2 mailako ikasleak kurtsoetik atera zirelarik. Izan ere, ondoko gelako ikasle misteriosu bat jin zen, pausa denbora baliatuz, ordularia gibeltzera. Iluntzen hasten zela ikustean, ikasle kuraidun bat ausartu da erakasleari galdegitera ateratzen ahal zirenez.

C1 mailako klasea giro goxoan hasi zen. Aste hastapenean, egunkari proiektuaren inguruan batzen hasi ziren, baina ostegunetik goiti giroa osoki aldatu zen. Ondoko klaseetako ikasleek hemen idazten ahal ez diren irainak entzun omen zituzten. Maddi taldeko erakasleari galdegin diogu nolaz aldatu zen giroa.

"Asteazkenean, Mikel heldu da klasera hitanoa aipatzera. Geroztik, taldeko bi ikasle hitanoa inposatu izan nahi izan diete besteei. Bi horiek izigarri errazki ulertu zuten nola eraikitzen zen forma eta erabili nahi zuten berehala, ez ahanzteko. Sekulako presionea ezarri diete taldeko beste ikasleei eta batzuek ez dute gustukoa atzeman. Oihuak izan dira bai, mehatxuak ere bai. Baina nehor ez da kolpatua izan", adierazi du Maddik.

Hala ere, jakin dugu taldeko ikasle baten autoko errota zilatua izan dela.



06

GURE MADDI

Marie Duzac

AEK-k neguko ikastaldia Etxepare lizeoan antolatzen du. Lizeo hori **Mayi (Maddi) Ariztia** karrikan da. Hara joan baino lehen, ez nuen ezagutzen Maddi Ariztia. Eta zuek, ezagutzen duzue?

Beraz, nor da? Maddi Diharassarri zuen berezko izena, Ariztia ezizenaz ezaguturik da. 1887an Saran sortu zen. Imajina ezazue gutxi gorabehera zein zen nesken bizitza garai hartan... Bederatzi seme-alaba ziren etxean! Zer pentsatzen duzue egin zuela neska horrek? Irakurri eta idatzi! Horrela, Iparraldeko lehen idazle emazte euskalduna sortu zen. 1933an, hitzaldi bat eman zuen Donostian: «Uskal-etche Zaharrak». Hurrengo urteetan hainbat ipuin idatzi zituen eta folklore gaiak bildu zituen. Garai hartan, testuak euskaraz argitaratzen zituzten idazle guztiak gizonak ziren. «Gure Maddi» zinez emazte aitzindaria zen!

Maddi Ariztiaren historia deskubritzean, pentsatu nuen izen hori berezia zela, eta, agian, Maddi guztiak nahiko bereziak izanen ote dira?... Zergatik ez?

Beste Maddi nabarmen batzuk...

Maddi Elizaga 1889an Saran ere sortu zen. Aupa Sara!!! Nahiz eta garai berean sortu ziren, familiak desberdinak ziren. Aita lapurtar amerikano bat zen, frantses eskuindarra eta euskalzalea. Etxean bi ahizpa baizik ez ziren, Catherine eta Maddi. Haien haurtzaroa eta gaztaroa Sara, Donibane Lohizune eta Zuraideren artean pasatu zituzten. 14 urterekin egunero idatzi zuen Maddik. Lehen mundu gerra pasatu eta gero, frantsesezko eleberririk argitaratu zituen, eta gero, euskarazkoak, besteak beste «Escualdunac» 1928an, adibidez. Bide batez, Eskualtzaleen Biltzarren urteko bilkuratan ohorezko mahaian esertzeko aukera izan zuen emakume bakarra zen. Etxean eman zioten heziketaren arabera Maddi Elizagak arrunt pentsamolde tradizionalista zuen. Dena den, gizonezko mundu honetan, idazlea izatea lortu zuen, eta hori, ez da gutxi!



Maddi Ariztia

Maddi Pelot C1 taldeko ikasle batek gutxienez ezagutzen du...berarekin Unibersitatean euskaraz ikasi baitzuen!

Maddi hori Talencen 1947an sortu zen, baina gero Miarritzen bizi izan zen. Ikasketa klasikoak egin zituen, frantsesa, latina eta greziera. Orduan, pentsatzen ari zarete zergatik Maddi horri buruz hitz egiten dizuedan, ezta? Emazte horrek 23 urterekin euskara ikasi zuelako! Zuek bezala, AEK-ko ikastaldi batean? Ez! Garai hartan AEK ez zen existitzen... Zer egin zuen Maddi Pelotek? Makina gauza bat: narrazioak, olerkiak, saiakerak, baina zientzia fikzioa euskaraz jorratzen aitzindaria izateagatik da ezaguna.

Itxaro Bordak dioenez: «Orduko izkiriataleak sorkuntza molde ezberdinak praktikara eramaten higitzen ziren, beste hizkuntzetan irakurria, entzuna, ikasia euskarara pasatzen saiatuz. Mayi Peloten esperimentazioa iduriz, gaurko ikuspegitik behintzat, ezinbestekoa zaigu».

Maddi Zubeldia. Nor da? Donostian 1961ean sortu zen eta 11 urte zituelarik, familia Ziburun jarri zen.

Zer egin du eta egiten ari da? Bai, Maddi hori ez da hiri! Lehenik, H-eden taldeko kantaria zen, bigarrenik idazlea (Deserria haurtzaro, Elkar 2017an, Eleberrir111 Akademia Sariko finalistetan sailkatu zen), hirugarrenik antzerki idazlea eta aktorea, ipuin kontalaria, zinema aktorea (2024an, Begi erreak film laburrean).

Eta hurrengo urteotan, zer gehiago?



Maddi Sarasua Laskarai

Maddi horrekin gaztetzen ari gara Itsasun 1995ean sortu baitzen.

Eta, zer berezitasun du neska horrek? Bertsolari gaztea da, bat-bateko bertsoetan. 11 urterekin hasi zen bertso eskolan! Eskolarteko txapelketetan eta 2012tik Xilaba txapelean parte hartu zuen. Jadaniak palmares zoragarria du: 2011n, bigarrena bukatu zuen; 2012an, bi txapelketan txapeldun eta beste batean finalista; 2014an, finalerdian.

Bukatzeko, 2024an lehen liburua plazaratu du: « Biharraren hegietan », olerki bilduma bat da, eta gai politikoak jorratzen ditu.

Baina ez da bukaera, hurrengo urteotan, zer egingen du Maddi Sarasua Laskaraik?

Maddi Zabalo Mateos

Zeberion (Bizkaian) 2002an sortu zen, beraz XXI. mendeko neska bat da! Nora eraman nau Maddi Ariztiak?!

Aspalditik du Maddi Zabalo idazteko afizioa, prosa batez ere. Bere ametsa idazlea izatea da. Lehenik, kantuak sortu ditu (Non daude, Artelana naiz), eta azken ekoizpena « Izotzetan islatuak » liburua da. 24 idazle euskaldun gazteren testuen bilduma da. Liburu hau aniztasunaren eredugarri da, bilduman zehar erabilitako euskalki desberdinak direla medio alde batetik. Baina baita idazle gazteek lantzen dituzten genero literario eta gaiak dagokienean ere.

Beste bat? Ados, aldi honetarako azkena!

Badakizuen bezala, hoberena bukaerarako atxikitzen dugu.

Horregatik, hemen **Maddi Kintana** atzemanen duzue! Eta nor da Maddi hori? Gure irakasle maiteena ! Irakasle baino gehiago da. Esaterako, lan potoloa egin zuen: Baionako, Angeluko eta Miarritzeko gazte euskaldunen hizkera ikertu du. Ondorio bat: nabarmena da frantsesaren eta sare sozialen eragina.

Aupa Maddi!!!

